



Plazan erakutsi zuten nola egiten zen sagardoa sagarratik abiatuta. [LAURI]

Sagar Uzta festak jende asko erakarri zuen beteta zegoen Foru enparantzara

► Eskaintza zabala bildu zuten herriko plazan eta bizilagunek ez zuten galdu nahi izan

► Erakustaldiak eta dastaketak, goiz osoan zehar

JUAN F. MANJARRÉS

ASTIGARRAGA. DV. Joan den igandean Sagar Uzta ospatu zen Foru plazan eta bertan jende asko bildu zen festa honetan parte hartzeko. Urtero gauza bera gertatzen da eta aurten ere jendeak ez zuen galdu nahi izan festa. Goiz osoan zehar

ekitaldi bat baino gehiago garatu ziren. Nahiz eta eguraldiak ez zion laguntzarik eman jaiari, euria agertu baita, Astigarragako bizilagunek eta kanpoko batzuek plaza bete zuten.

Aurtengo gidoiak ekitaldi asko zituen bere barruan eta parte-hartzaileek aukera izan zuten jar-

duera batekin baino gehiagorekin gozatzeko. Hasteko, goizeko 9:00etatik aurrera, aire zabaleko margo lehiaketa antolatu zen eta artistak goiz osoan zehar margotzen ari izan ziren. Goizeko 10:00etan 'Sagar Biltzea' desfilea egin zen Pelotari kaletik Foru enparantzara eta 10:30ak aldera sagardo azo-

ka jarri zen plazan. Erakusteta eta salmenta izan ziren azokan igandean. Bertan sagar mota desberdinak ikusteko aukera izan zen.

Festa honetan zatirik jendet-suenetako batzuk erakustaldiak dira eta igandean bost antolatu ziren Astigarragan. Dastaketek ere arrakasta haundia dute eta antolatzaileek bi eratu zituzten: Sagardo dastaketa gidatua, hiru saio, eta betiko dastaketa libre. Bukatzeko, lau talde erabili ziren kaleak animatzeko. Egunari amaiera eman zioten eguerdian herri bazkari batekin. ■



Enparantzán sagardo dastaketa egin baino lehen, desfilea antolatu zen Pelotari kaletik plazara. [LAURI]